



olerki-bilduma

MARIO BENEDETTI

itzultzailea: Iban Laka

 BOOKTEGI



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

MARIO BENEDETTI

olerki-bilduma

itzultzailea: Iban Laka

AURKIBIDEA

Itzultzailearen hitzaurrea

Itsasotik urrun

Harea

Euria itsasoaren gainean

Iraganeko pausoak

Edertasuna odolatan

Gauza gutxi

Gogogabetasunak

Begi lehorrak

Intimitatea

Haize eta itsaso

Laztanen gaineko txostena

Oraindik

Ilargi izoztua

Mass media

Itsasorako botila

Denborarik gabeko astia

Betikara

Itsasoaren isiltasuna

Bihotz babes

Ez zaitetz salba

Multzoen teoria

Kalma zuria

Hori diote

Beste zeru bat

Sindromea

Norberarena da errua

Aldarteak

Burkoak

Atzo

Aterpea

Auzoa

Mineriak

Arratsaldeko maitasuna

Arte poetikoa

Maite zaitut

Hegoaldea ere bada

Itsasoa

Taktika eta estrategia

Hegoaldea

Liburuak

Oroiminak

Maitasunak

Oinatz hiri

Itzultzailearen hitzaurrea

Mario Benedetti Uruguako idazlerik garrantzitsuenetako bat izan zen. Genero literario guztiak jorratu zituen: poesia, eleberrak, ipuinak, antzerkia, saiakera, kazetaritza-lanak eta abar.

Benedettiren obrek eguneroko bizimodua eta errealitateak dituzte oinarri nagusi. Eta azpimarratzekoa da, inolako ezbairik gabe, bere luma apartaren samurtasun eta humanismoa, eta baita bere aldarte on zein ironia zorrotza.

Poesia, egia aitor, ez da gaur egun jende askok irakurtzen duen generoa. Eleberria dugu jaun eta jabe. Erabat baztertutako generoa izan da, eta definitzeko orduan ia jende guztiak adjektibo bi hauek baliatzen ditu: astuna eta konplexua. Eskolan landutako poesia apurra horrelakoa zen, eta hainbeste maite genituen testu-iruzkinek ez zuten gehiegi lagundu harreman korapilotsu horretan. Poeten olerkiak halakoak ziren. Eta, gainera, zenbat eta ulergaitzagoa izan idazlearen idazkera, orduan eta ozenagoa genuen irakaslearen gorazarrea.

Mito hauek guztiak apurtzeko Mario Benedettiren poesia dugu. Poesia berarentzat munduaren arima da, literaturaren Errauskine kuttuna. Eta arima horren bi taupada sentituko ditugu poema hauetan: hotzikara eta freskura. Elur-luma batek azalean eragiten duen hotzikara. Udako ekaitz baten freskura.

Eskerrik asko suagatik Mario!

Itsasotik urrun

Esnatzen naizenean urrun

behar ez nauen itsasotik

zerbait falta zait etorkizunean

eta leihoan eta aurpegian

nik badakit itsasoa

heriotza bezain betierekoa dela

ahantzuraren itsasoa talamo bat bezalakoa da

zelai geldi edo astindua

hodei olatuen zerubaxu

infinituaren zirriborro

Nik badakit itsasoa

isiltasuna bezain zekena dela

Lo geratzen naizenean urrun

gesal kaoengandik

amesten dut itsasoak arre besarkatzen nauela

eta bere erraietan abandonatu

nik badakit itsasoa erantzuna dela

Harea

Harea nire hatzen artean

nire berunezko oin pean

harea hegalari

harea on

Zure oroimen lore-hautsean

ezkutatuta geratu ziren

nire gazteluak

gorde itzazu

ume bat

beste ume bat

nire ibiltzeko baimenarekin

askatzera hurbilduko den egunera arte

Euria itsasoaren gainean

Trumoiaren oihartzuna bezala

gaua iluntzen da

baina euriak bero

ostertza probokatzen du

uholde errukiorra

itsasoan maiz agertu

barra gardenekin

eta kristalezko ezpatekin

euriak putzutxoak egiten ditu

itsaso isilean

tanta bakoitza irekitzen da

kaleidoskopio batean

euriak itsasoa blaitu

jantzi eta biluztu

itsasargiaz arduratu gabe

bere burbuilan hordi

sirenak eta izurdeak

elkarri bere alarmak pasatzen

eta ihesi ezkutatzera

haien ur basoetan

eta horrela hodeiak

euriz bete arte

eta itsaso bihurtu

ilargi babes eta ispilu

Iraganeko pausoak

Iraganeko pausoak entzuten ditut artean

desioa eta ni hain arinak ginenean

gauza eder eta baita entzundako zein inkario atzetik ibiltzeko ere

o, atletak bezalakoak ginen

eta ahaztezina ere ahazten genuen

iraganeko pausoak bakarrik gelditzen ziren

bihotzaren mezulari batek deitzen zuenean

eztarriko kexa edo otoitz batekin

gelditzen ziren labaintzen zirelako

bide-zoruan edo baldosa grisetan

eta batik bat negarraren hezetasunean

iraganeko pausoak bidetik atera ziren

agindu guztietatik nahita besteratu

ez dakit nondik dabilzan/ zer gainbeheran

instalatu ziren edo instalatu nahi diren metodoz eta tentuz sortzeko

etorkizuneko pauso misterioitsuak

Edertasuna odoletan

Krimen globalizatua/unibertsala

eguneroko ogi edo gaueroko

errealitate egonkorra ez da orain

edertasunaren laburpen birtuala

hortz zuri-zuridun ume beltzen

hezur hutsezko begiradak baino

pairamen eskala

ura jateko gozo urrun

lurra lehor oroimin ebakietan

eta edozein koloretako babesgabetasuna

pantaila guztietan alarma

axolagabeen gozagarri

gosekien globalizazioa

nagusien gosegarri

bezperako krimen arruntak

hilotz berri poltsan

polizetan bonuetan eta merkatuetan

edertasuna orain odoletan/

odolbiltzen

Gauza gutxi

Mundu honetan hain gauza gutxi daude
norberaren bizitza ezitzeko gai direnak
esan dezagun itxaropen argitua
edo baldosetan dir-dir egiten duen euria

gogoko dut arrosen irmotasuna
arantza bat galdutzat jotzen ez duena
eta errepikatzen den palmondoen tristura
hain bakar eta harro

baina ez dago ezer hain sakon eta arin
arima eta bertigoa eta emakume horren ezpainak baino
ikustean hunkitzen gaituena

zeru eta amets artean norbait izateko
gorrototik eta bere bizioetatik salbatzeko
ez dago maitasuna eta bere kontsolamendua baino hoberik

Gogogabetasunak

Berrogei milioi haur hil

egunero

gose eta egarriaren garbitokian

gorputz txiroen torturak

arimak banan-banan doilor

eta boterea harro bere

berrogeialdiez

edota txiroak solemnitatez

gero eta solemnitate gutxiago eta txiroago

nahiko larria da jada

gizon bakar batek

emakume bakar batek

etorkizun neutroa oharkabean

begiratzea.

baina krudela ordea

krudela soilik

gizadia bada

bizkarra jasotzen duena

Begi lehorrak

Tristeena begi lehorren negarra da
oroimen edo oroimenik gabe negar egiten dena
eztarriarekin/ garezurrarekin
edo nor bere baitan biltzearen bandak

borroka eroengatik negar egiten nuen lehen
odol zein ausardia elezaharrek
dardarez zauritutako paisaiagatik
zerura begiratzeaz nekatuta zeudenengatik

baina lehortu ziren begiak/ argi
lehortu ziren esna/ alderrai
ez dakite zer begiratu zer onartu
begi liluratu/hauskara

horregatik negar lehorra harresi
erdeinu guztiek jo
eta norbera bizi xerka/ xerka
malko gaziak irensten

Intimitatea

Amets elkarrekin

elkarrekin esna

denborak egin edo desegin

bizkitartean

ez dio axola zure ametsak

ezta nire ametsak ere

traketsak gara

edo zuhurregiak

pentsatzen dugu ez dela erortzen

kaio hori

uste dugu betiko dela

arao hau

gurea dela borroka

ez beste inorena elkarrekin bizi

elkarrekin erori

baina hondamen hori

txantxa bat da

xehetasun bat haizealdi bat

aztarna bat

irekitzea edo ixtea

paradisua

jada gure intimitatea

hain da handia

non heriotzak ezkututzen duen

bere hustasunean

kontatzea nahi dut

isiltzen duzun dolua

nire aldetik eskaintzen dizut

nire azken konfidantza bakarrik zaude

bakarrik nago

baina batzuetan

bakarkadea izaten ahal da

gar

Haize eta itsaso

Haizeak proposamenak hurbiltzen ditu

lehengoak baino hobeak

eta ez dira galderak

hutsal edo lizunak

baina itsasoak erantzunak ditu

bat-batean inprobisatuak

eta elkarrizketa hain da bortitza

non ezingo dudan atsedena hartu

itsasoa baretzen ez den bitartean

haizea eteten ez den bitartean

Laztanen gaineko txostena

1

Laztana hizkuntza bat da

eta zure laztanek hitz egingo balidate

nola nahi isiltzea

2

Laztana ez da

beste laztan urrun baten kopia

bertsio berria da

ia beti ondua

3

Azalaren jaia

laztana iraun bitartean

eta urrundu ahala

lizunkeria babesgabea

4

Ametsen laztanak

mirari eta xarma

akats bakarra

ukimen falta

5

Abentura eta enigma bezala

laztan hasiera

laztan bihurtu aitzinera

6

Argi dago onena

ez dela laztana bera

bere jarraiera baizik

Oraindik

Ezin sinetsi oraino

heltzen ari zara nire ondora

eta gaua ahurtara

izar eta bozkario

ukitu dastatu aditu eta ikusi

zure aurpegia zure pauso luze

zure eskuak eta halere

oraino ezin sinetsi

zure itzulerak

nirekin eta zurekin estua lotura

aierua esaera

zalantzak kantuak.

ez zaitu inoiz inork ordezkutzen

eta gauza xumeenak bihurtzen dira nahitaezkoak

zu ari zarelako etxera ailegatzen

halere oraino

nire zorte onaz zalantzati

zu nire ortzi

amets irudiko

baina bazatoz eta argi dago

bazatoz zure begiradarekin

eta zure etorrerarekin

etorkizuna magiko

eta nahiz eta beti ez izan aditzaile egoki

nire erru eta porrotetan

badakit ordea zure besoetan

munduari nola eutsi

eta musukatzen badut kemenik

eta zure ezpainen misteriorik

ez da egongo ez zalantzarik ez biziorik

gehiago maiteko zaitut

oraindik

Ilargi izoztua

Bakardade honekin

azpikaria

lasaia

bakardade honekin

aje sakratuena

ulu urrunena

isiltasun itzelarena

bide-zoru oroitzapenena

ilargi izoztuarena

besteentzako gauarena

begi biziki irekiena

bakardade honekin

erabilgaitza

hutsa batzuetan

ahal da

ulertu

maitasuna

Mass media

Hedabideetatik

hain kodifikatuta dagoen mundu honetan

internet eta beste nabigazioekin

nik oraindik nahiago

artisau-musu zaharra

betidanik hainbeste komunikatzen duena

Itsasorako botila

Itsasorako nire botilan sei bertso hauek jartzen ditut isileko asmoarekin

egunen batean hondartza ia bakarti batera hel

eta ume batek aurki eta estalkia kentzea

eta bertsoak atera beharrean

harri-koskorak eta laguntzak

alertak eta barraskiloak ateratzea

Denborarik gabeko astia

Denbora behar dut

denbora hori

beste batzuek alde batera utzitakoa

sobera edo ez dakitelako jada zer egin berarekin

denbora

zuri

gorri

orlegi

gaztaintara eta guzti

koloreak ez dit axola

denbora xumea

ireki ezin dudana

eta itxi

atea bailitzan

denbora begiratzeko

zuhaitz bat, argiontzi bat

atsedenaren ahotik ibiltzeko

pentsatzeko gaur negua da eta zeinen ondo

pixkat hiltzeko

eta berehala jaiotzeko

giltza asmatzeko

giltza emateko

denbora behar

nahikoa denbora

bizitzan ordu batzuk plisti-plasta aritzeko

zergatik nagoen triste aztertzeko

nire hezurdura zaharrera ohitzeko

denbora ezkutatzeko

oilar baten kantuan

eta berriro agertzeko

irrintzi batean

egunean egoteko

gauean egoteko

arreta eta erlojurik gabeko denbora

behar esan eta aski da

behar izan alegia

esan dezagun gabezia

denborarik gabeko astia

Betikara

Horma horrek poliki-poliki aldentzen nau

harriz harri iraindu

ez dudalako denborarik itsasoraino jaisteko

eta bere zorigaiztoko poz karrankarria entzun

ez dudalako denborarik atsekabeak biltzeko

zeru zulatzailea den pinu haren azpian

ez dudalako denborarik haizeari aurpegia emateko

eta arima zein birikak zinez egurastu

begiak ixtera noa eta belarriak hormatzera

eta beste itsaso bat nire sareetan isuri

eta ametsezko pinu bat zutitu

eta arrastaka eramango nauen haizea sortu

azpikeria eta makinetatik urrun

ordutegi eta gogaikarriengandik urrun baina etxe barruan porrota

asmatzen dudan itsaso honek ez nau bustitzen

ez dauka lurrinik zutitzen dudan zuhaitzak

eta nire ordezeko urakanak

ez du balio ezta gorroto lehorrak ekortzeko

orduan nire ingurura itzultzen naiz

arratsaldea berriro entzun eta dunbotsa

berriro horma begiratu harriz harri

eta aieru erabakiorrera heldu

eraitsi beharko dut

itsasoa, pinua, haizea

konkistatzen joateko

Itsasoaren isiltasuna

Itsasoaren isiltasuna

amaigabeko judizio orro

txanbil bat baino bilduago

bi tanta baino zorrotzago

ostertza hurbilarazi edo

marmoken heriotza urdina helarazi

gure susmoek ezin utzi

itsasoa entzule gor

jainkoa bezain sor

bizirauleei bizirautea lor

ezin jakin zer espero

zer arao nire orkatiletan idoro

baina begi hauek lausaz asez gero

lautada eta muino

edo kale gehiagotan ixten diren kaleetan itxaro

orduan bai naufrago

eta itsasoak baino ez salbatuko

Bihotz babes

Zaitudulako eta ez

pentsatzen zaitudalako

gauak begi irekiak dituelako

gaua pasa eta maite diodalako

zure irudia hartzera etorri zarelako

eta zure irudi guztiak baino hobea zarelako

oinetik arimara eder

arimatik nigana on

harrotasunean ezkutuan ezti

txiki eta ezti

bihotz babes

nirea zarelako

nirea ez zarelako

zu begiratu eta hil

hil baino okerrago

begiratzen ez bazaitut maite

begiratzen ez bazaitut

zu beti edonon

non maite zaitudan hobe halere

zure ahoa odol

zu hotz

maitatu behar zaitut maite

maitatu behar

nahiz eta zauri honek biren mina eman

nahiz eta bila eta topa ez

nahiz eta gaua pasa eta zu izan

eta ez

Ez zaitez salba

Ez zaitez geldi gera

bide ertzean

ez izoztu poza

ez gogorik gabe maita

ez zaitez orain salba

ez inoiz ez

ez zaitez salba

ez lasaitasunez bete

ez mundutik gorde

bazter bare bakar bat

ez utzi betazalak erortzen

judizioak bezain astun

ez ezpainik gabe gera

ez logurarik gabe lo

ez odolik gabe pentsa

ez denborarik gabe epai zeure burua

baina

hala ere

ezin baduzu uka

eta poza izozten baduzu

eta gogorik gabe maita

eta orain salba

eta lasaitasunez bete

eta bazter bakar bare bat

mundutik gorde

eta betazalak erortzen utzi

judizioak bezain astun

eta ezpainik gabe xuka

eta logurarik gabe lo

eta odolik gabe pentsa

eta denborarik gabe epaitzen baduzu zeure burua

eta bide ertzean geldi gera

eta salba

orduan

ez nirekin gera

Multzoen teoria

Gorputz bakoitzak du

bere harmonia eta

bere harmonia falta

kasu batzuetan

harmonien batura

izan daiteke kasik

melenga

beste batzuetan

harmonia falten multzoak

edertasuna baino hobea den zerbait

sortzen du

Kalma zuria

Itxaroten haizeak zure adarrak makur ditzan

ur-maila zure hareara hel

itxaroten zeruak zure buztina osa dezan

eta zure oinetan lurra bakarrik mugi

herri

geldi zaude

nolatan

ez dakizu

nolatan ez dakizu

oraindik

haizea zarela

marea

euria zarela

lurrikara

Hori diote

Hori diote

hamar urteren buruan

dena aldatu dela

han

diote

etorbidea zuhaitzik gabe dagoela

eta ez naiz ni inor zalantzan jartzeko

akaso ez nago ni zuhaitzik gabe

diotenez jada ez dauden

zuhaitz horien oroimenik gabe?

Beste zeru bat

Ez da existitzen zerua garbitzeko belakirik
baina xaboitu ahal izan arren
eta gero itsaso baldeak eta baldeak bota
eta lehortzeko eguzkitan eseki
isilik dagoen txoria beti faltako litzaizuke
ez dira existitzen zerua ukitzeko metodoak
baina palmondoa bezala luzatu arren
eta zure eldarnioetan marruskatzea lortu
eta azkenik jakin nolakoa den ukitzea
kotoizko hodeia beti faltako litzaizuke

ez da existitzen zerua zeharkatzeko zubirik
baina beste ertzera heltzea lortu arren
oroimen eta iragarpenen poderioz
eta egiaztatu ez dela hain zaila
egunsentiaren pinua beti faltako litzaizuke
zeurea ez den zerua delako da hori
oldartsua eta urratua izan arren
zeurera heltzean berriz
ez duzu xaboitu, ukitu, zeharkatu nahi izango
baina txoria, hodeia eta pinua egongo dira

Sindromea

Oraindik ia hortz guztiak ditut

ia ile guztiak eta ile zuri gutxi

egin eta desegin dezaket maitasuna

binaka eskailera bat igo

eta omnibusaren atzetik berrogei metro korri

beraz, ez nintzateke zahar sentitu behar

baina arazorik larriena da

lehen ez niela horrelako xehetasunei erreparatzen

Norberarena da errua

Agian itxaropen hondamendia izan zen
erortze nolabait aurreikusia
ai baina nire tristeziak noranzko bakarra izan zuen

nire intuizio guztiak agertu ziren
sufritzen ikusteko
eta ikusi, ikusi ninduten

orain arte egin eta desegin
nire bideak zurekin
orain arte apustu
egia asma
baina zeuk bilatu zenuen modua
modu samur
eta aldi berean errukigabea
nire maitasuna botatzeko

iragarpen bakarrarekin kendu zenuen
zure bizitza posiblearen aldirietatik
oroiminetan bildu
zamatatu kuadrak kuadra
eta pixkanaka
gaueko airea ohartu gabe
han utzi besterik
handia ez den bere zortearekin bakarka

uste dut arrazoi duzula

norberarena da errua maitemintzeko gai ez bada

ez aitzakiena

ezta denborarena ere

orain dela asko, askotxo

ez niola aurre egiten

bart bezala ispiluari

eta zu bezain errukigabea izan zen

samurra ez ordea

orain bakarrik nago

benetan

bakarrik

beti kostatzen da apur bat

zorigaiztoko sentitzen hastea

bueltatu aurretik

nire neguko kuartel goibeletara

begi zinez lehorrekin

badaezpada

begiratzen dut nola barruratzen zaren laino pean

oroitzen hasi

Aldarteak

Hainbatetan sentitzen naiz

muino huts

eta bestetan mendi

tontor errepikatuekin

hainbatetan sentitzen naiz

itsaslabar

eta bestetan zeru

urdin eta urrun

batzuetan norbera da

harkaitzen arteko iturburu

eta beste batzuetan zuhaitz

azken orri

baina gaur sentitzen naiz doi-doi

urmael esna

ontzirik gabeko

ontziratzeke leku jada

urmael berde

mugiezin eta jasankor

bere algekin konforme

bere goroldioekin eta arrainekin

lasai nire konfiantzan

itxaropentsu

arratsalde batean

hurbildu eta begira zaitezen

begira zaitezen niri begira

Burkoak

Lumazko burkoak daude

biao burkoak

artilezkoak

sabelekoak

heriotzakoak

baina guztiak ez dira

sekretuan

ezta kontsultak nola husten diren

jakitun

zureak

putzu bat du

non doitzen duzun

garondoa

eta gau

mingotsetan

begiak eta malkoak

hondora

Atzo

Atzo igaro zen iragana ezari-ezarian

bere behin betiko zalantzarekin

zorigaiztoko eta noraezean ikusita

bekokira zigilatutako zure dudekin

atzo igaro zen iragana zubitik

eta zure askatasun gatibua

eta haragi bizizko isiltasuna aldatu

zure inozente alarma txikien truke

atzo igaro zen iragana bere historiarekin

eta bere ziurgabetasun listua

bere izuzko eta gaitzespenezko aztarnarekin

mina ohitura bihurtu

zure oroimenean porrotak ereinez

eta gauarekin bakarrik utziz

Aterpea

Ume harritu bat

baino ez nintzela

bizi izan nintzen urte batzuk

han Colonen

ia laten-zulo zen batean

garai dohakabe samarra

baina geroago ez naiz inoiz

hain salbu sentitu

hain babestu

txatalen ohazalean azpian

lo egiten hasi nintzenean legez

euri indartsua

kantari

zinkezko

teilatuairen gainean

Auzoa

Auzora itzultzea beti da alde-egite bat

ia bi ispiluri aurre egitea bezala

hurbiletik begiratzen duen bat eta beste bat urrunetik

oroimen errepikatu traketsean

hautzaroa / izan zena / galduta darrai

ez ziren patioak horrelakoak / islak dira /

jolasten diren haur horiek zaharrak dira jada

eta tentu gehiagorekin dabilta bizitzan

auzoak xarma du eta euri lasaia

atseden hartzen duen tranbia batentzako errailak

ez da eteten gauean ezta goiz jaiki

norbaitek bilatzen baditu iraganeko zatitxoak

agian ikusiko du bere burua bere baitan bilduta /

auzora itzultzea beti da ihesaldi bat

Mineriak

Deserosoa da hutsik sentitzea

betetasun batzuez

gozatu eta gero

bizitza gaixoa tarte bat bihurtzen da

eta norberak bazter batean ezkutatzera jotzen du

itsasoa han geratzen da

urrun eta egiazko

eta ni hemen gelditzen naiz

mineria huts

eta etsi

hezur hauen jabe

izango da oso gutxi delako

duguna

eta apur hori

ezin-sorta

Arratsaldeko maitasuna

Lastima da nirekin ez egotea
erlojua begira eta laurak direnean
eta inprimakia amaitu eta hamar minutu pentsatzean
eta hankak luzatzean arratsaldero bezala
eta sorbaldekin horrela egitean bizkarra lasaitzeko
eta atzamarrak tolestu eta gezurrak ateratzean

lastima da nirekin ez egotea
erlojua begira eta bostak direnean
eta interesak kalkulatzen dituen heldulekua naizenean
edo bi esku berrogei tekletan saltoka
edo telefonoa zaunka entzuten duen belarria
edo kontuak ateratzen dituen tipoa eta egiak azalera

lastima da nirekin ez egotea
erlojua begira eta seiak direnean
hurbil zintezke ustekabean
eta esan "Zelan?" eta geratuko ginateke
ni zure ezpainen orban gorriarekin
zu nire ikatz-ziriaren kedar urdinarekin

Arte poetikoa

Jo dezala jo

inor

ez entzunarena egiteko gai ez izateko

Jo dezala jo

poetak

jakin arte

edo, behintzat, uste

berari deika

ari direla

Maite zaitut

Zure eskuak laztan nire

nire eguneroko akorde

zure eskuak maite

justizia xede dihardute

maite bazaitut maite

nire maitasun nire konplize eta oro

eta kalean ukondo ukondo

bi baino askoz ere

nire arao zure begi

egun txarrari aurre

zure begiradagatik maite

so eta etorkizun hazi

zure eta nire den zure aho

zure ahoa ez erra

zure ahoagatik maita

asalduraren txilio

maite bazaitut maite

nire maitasun nire konplize eta oro

eta kalean ukondo ukondo

bi baino askoz ere

eta zure aurpegi zintzoagatik

eta zure pauso arlote

eta munduan zeharreko zure negarragatik

herria izateagatik maite

eta maitasuna ez delako aureola

ezta irakaspén xume

eta garelako bikote

dakiena bakarrik ez dagoela

maite nire paradisuán

hots, nire herrián

jendea pozik bizitzán

nahiz eta baimenik ez izán

maite bazaitut maite

nire maitasun nire konplize eta oro

eta kalean ukondo ukondo

bi baino askoz ere

Hegoaldea ere bada

Bere altzairuzko errituarekin

bere tximinia handiak

bere klandestino jakintsuak

bere sirena kantua

bere neonezko zeruak

bere gabonetako salmentak

bere jainko aitaren gurtza

eta txarratelena

erreinuko bere giltzekin

iparra da agintzen duena

baina hemen behe-behean

gose erabilgarriak

beste batzuek erabakitzen duten

fruitu mingotsa baliatu

bitartean denbora pasa

eta desfileak pasa

eta beste gauza batzuk egiten dira

iparrak debekatzen ez dituenak

bere itxaropen gogorrarekin

hegoaldea ere bada

bere predikariekin

bere gas pozoitsuak

bere Chicagoko eskola

bere lur-jabeak

bere luxuzko jantziak

eta bere hezurdura pobrea

bere defentsa gastatuak

bere defentsa gastuak

bere balentria inbaditzailearekin

iparra da agintzen duena

baina hemen behe-behean

bakoitza bere ezkutalekuan

gizonak eta emakumeak daude

zeri heldu dakitenak

eguzkia aprobetxatuz

baita bere eklipseak ere

alferrekoa baztertuz

eta erabilgarria erabiliz

bere eskarmentu handiko fedearekin

hegoaldea ere bada

bere adar ingelesarekin

bere akademia suediarra

bere saltsa amerikarra

eta giltza ingelesak

bere misil guztiekin

eta bere entziklopediak

bere galaxien gerrarekin

eta bere ankerkeria oparoa

bere ohore guztiekin

iparra da agintzen duena

baina hemen behe-behean

erroetatik hurbil

non oroimenak

ez duen oroitzapenik isilean gordetzen

eta batzuk eginahalak ezin

eta beste batzuk eginahalak egin

eta horrela denen artean lortzen dute

ezinezkoa zena

mundu guztiak jakitea

hegoaldea ere badela

Itsasoa

Itsasoak ukitzen du hondartza mundua geldo dagoenean

urrunetik bila / azkenean bakarrik topa

pikorraz pikor hartzen du eta bere erritmo zuhurrean

poliki isuri / bere olatuekin besarka

itsasoak aldean dakar bere abordatzeen istorioa

matxurak hondoratzeak bengalak salbagailuak

eta hilak eta hilak beste paisaiarik ikusi gabe

marrazo zaharrak eta hodei errepikakorrak salbu

bidenabar miretsi eta begira ilargiaren adarrak

eta ezerezetik datozen izar iheskorak

ekaitzen bat edo beste bata bestea bezain ezgaraiko

eta egunsentiak iragartzen duen bake aspergarria

hondartzak onartzen du itsasoa jakintsuena dela

denboraren inguruko nozio sakonena duena

itsasoak harkaitzetan uzten du irain-ordearen gatza

eta hondartzak goza etorrera eta urak hartzea

Taktika eta estrategia

Nire taktika zuri begiratzea

nolakoa zaren ikastea

zaren bezala maitatzea

nire taktika zurekin mintzatzea

eta entzutea

hitzekin eraikitzea

zuzi suntsiezin bat

nire taktika

zure oroimenean geratzea

ez dakit nola ez zein aitzakiarekin

baina zugan geratzea

nire taktika zintzoa izatea

eta zintzoa zarela jakitea

eta itxurarik ez saltzea

bion artean

ez oihal ez amildegi

nire estrategia,

aldiz,

sakonagoa soilagoa

nire estrategia

edozein egunetan

ez dakit nola ez zein aitzakiarekin

zuk ni behar izatea

Hegoaldea

Han behean hegoaldean nire etxea dago

onaren aztarnak

nire etsai gozoak

jaio nintzen goizaldea dago

tristezia

pozak bezala laztantzen nauen bakarra

lehen maitasunaren gatza

betiko zuhaitzak

beren harrera berdearekin

eguzki apurra kanteroetan

atariak beren bikote epelarekin

eta bihotz irekien gauetan

Esne Bidea

han bakarrik estaltzen gaituen argi sabaia

kaleak beren errailekin

tranbiarik gabe

ez dauden nireen oroimina

desagerraraziak

errukirik gabe eta amorruez

eta han gera zurrun eta hobirik gabe

eta bakarrik ahanztura hobiekin

han behean hegoaldean nire etxea dago

bere kontakizuna insomnioetan utzita

bere arrosak mintza petaloz petalo

eta murruetan egiak ageri

denbora gerta nahi

bakea hondakinik gabe

besarkada berreskura dezagun nahi du

han behean hegoaldean nire etxea dago

bere atearekin

nire giltza

noiz sartuko

Liburuak

Liburuen artean geratu nahi dut

Roque Dalton, Vallejo eta Quirogarekin hunkitu

beren orrialdeetako bat izan

ahaztezinena

eta handik mundu gaixoa epaitu

ez dut nahi inork koadernatzerik

paper-azalez pentsatu nahi dut

oroimen argiaren begi-nini berdeekin

beldurrak airean doan gaueko brebiarioan

nire sentimenduen alfabetoak

badaki nire izen maiteetan pausatzen

eroso sentitzen naiz hainbeste orriren artean

errebelazioak diren adberbioekin

laguntza eskatzen didaten silabak

adjektiboak diruditen jostailuak

liburuen artean geratu nahi dut

hietetan ikasi dut pausoak ematen

amarru eta bizi-ufakoekin bizitzen

besteek sortutakoa ulertzen

eta behingoz izaten

naizen apur hau

Oroiminak

Deserosoa da huts sentitzea

gozatu eta gero

betetasun batzuez

bizitza gaixoa tarte izatera pasatzen da

eta norberak bazter batean ezkutatzeko joera du

itsasoa han geratzen da

urrun eta egiazko

eta ni hemen geratzen naiz

dena oroimin

etsiak hartzen bagaitu

hezur hauen jabe bihurtu

izango da oso gutxi delako

daukaguna

eta gutxi hori

ezinezkoen

sorta bat

Maitasunak

Maitasuna neutroa denean jada ez da su
heriotza badu mehatxu gezurtia delako da
eta goizegi zahartzen bada
gor eta mutu utzi dutelako da

maitasunak geroko gordetzen baditu garrak
eta edukia bihurtzen bada edukitzaile
aurrez aurre hiltzera ez bada ausartzen
jokoan tranpak egin dituelako da

bolandero lehorreko itsasoz bestaldeko
batzuetan pizten ditu bengala argiak
eta auzokoarekin ospa

promesa du babestoki gogoko
baina bakarrik sinesten dugu geldialdia egiten badu
tristezia ziurtagiriarekin

Oinatz hiri

Beste itzulera bat zain

hodeiak pasa hazi

nire uda zure negu

eta alderantziz

nobedadeetan pentsatzen dut

duela bi urte topatutakoak

izango dira orain

gauza jakin

irailaren bukaeran

zure usainetan egongo naiz

haize hiri

zure gaua arnas

ilargi hiri

zure zauriak uki

amets hiri

zure ate eta balkoietan pentsa

esanak aurpegi berrietan

zure zitalen kanteroa

zure justuen hostotza

ordu batzuen buruan

zure hildakoetara gerturatu

hil hiri

zure taupadetan taupaka

bizi hiri

nire oinatzetan oinka

oinatz hiri